

BARNE ARAUDIA

2000ko ekainaren 30ean Bazkideen Aparteko Batzarrean onetsia

2002/11/15eko Batzarrean moldatua (11.artikulua)

2003/11/11ko Batzarrean moldatua (12.artikulua)

Azken Moldaketa:

14/12/2015eko Aparteko Batzarrean indarrean dagoen legedia betetzearren Erregistroan premiaz aurkeztu beharreko Estatutu berrietara egokitzeko moldatuak (moldatutako artikulua 1A, 2, 4,9, 21, 22A, 39D, 39F-M, 39Eranskina, 61, 62, 63, 64,65),aldi berean Erregistratutako izena aldatzeari buruz Batzar Nagusiaren erabakia berretsiz, Estatutu Berrietan agertzen den gisa.

I. KAPITULUA

ELKARTEAREKIKOAK

1. artikulua

A) AIZKORRI MENDIZALE ELKARTEA irabazi asmorik gabeko elkarte bat da, iraupen mugagabea duena, berezko nortasun juridikoaz eta bere helburuak betetzeko jarduteko gaitasunaz hornitua. Elkartearen helburua mendi jarduera egitea eta zaletasuna sustatzea da.

Klubak ahalmen-urritasuna duten pertsonen kirola sustatuko du, unean-unean dagoen eskakizunaren arabera eta eskura dituen giza baliabideak eta baliabide materialak kontuan hartuta. Halaber sustatuko du emakumezkoen kirola, kirol-motak emakumeengana zabaltzeko lana bultzatuz.

Horrek ez du esan nahi, ordea, klubak bere kabuz edo beste entitate batzuen bitartez ezingo duenik jarduera ekonomikorik gauzatu, baldin eta klubaren helburuekin loturaren bat badute edo helburu horien zerbitzura badaude.

B) Elkarte, gehienera ere, 110 Bazkide Osoz osatuta egongo da eta denek ere, eskubide eta obligazio berdinak izango dituzte. Eskubide eta betebeharrak horiek zeintzuk diren, Araudi honen I. Kapituluaren adierazten da. Elkarteak gainera, mugagabeko Kirol-bazkideen kopurua izango du, Araudi honetako IV. Kapituluaren definitzen denaren arabera.

AIZKORRI Mendizale Elkarte

Elkarteko Zuzendaritza-batzordeak, Bazkide Osoen kopurua denboraldi baterako murriztea komenigarri dela ikusiko balu, bidezkoak iruditzen zaizkion hutsuneak bete gabe utziko ditu. Bazkide-kopurua murriztu edo handitu nahiko balitz, behar-beharrezkoa izango da Batzar Nagusiak, botoen gehiengoz, hala erabakitzea.

2. artikulua

Aitzgorri Mendizale Elkarte Beasainen, Gipuzkoa, sortu zen 1962an egindako eraketa akordioari esker. Elkarteak ofizialki eta juridikoki "AIZKORRI MENDIZALE ELKARTEA" izenez egiten du inskripzioa, 2015eko abenduaren 14an egindako ezohiko Batzar orokorrean izena hala eguneratzea erabaki baitu. Aizkorri Mendizale Elkarteak honako helbidean du bere egoitza eta helbide soziala: Jose Martin Arana, 2 zk.-behea.

Kirol-klubaren eraketa, inskripzioa, aldaketa, desegitea, antolaketa eta funtzionamendua honako lege-xedapen hauen mende egongo dira: Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legea, Kirol klub eta kirol elkarteei buruzko ekainaren 22ko 163/2010 Dekretua, klubaren estatutuak eta aplikagarriak diren gainerako araudiak, eta bere batzar orokorrak eta gainerako gobernu-organoek hartutako erabaki baliiodunak. Lege-xedapen horiek jasotzen ez duten alderdiei dagokienez, elkarteen alorrean indarrean dagoen araudi orokorra aplikatuko da.

Kasuan-kasuko kirol-kluba atxikitzen den kirol-federazioaren lege-xedapenak aplikatuko zaizkie kirol-klubei, afiliazio horren ondorioz bidezkoa den neurrian.

3. artikulua

Aizkorri Mendizale Elkarte, mugagabeko denboraldirako eratu izan da eta bera desegin ahal izateko, behar-beharrezkoa izango da Batzar Nagusia eratu eta bozketa bidez bere Bazkide Osoen 3/5en gurariz hala erabakitzea.

4. artikulua

Elkarte hau mistoa izango da, beraz, **GIZONEZKO NAHIZ EMAKUMEZKOAK IZAN DAITEZKE BERTAKO BAZKIDE OSO, eskubide eta betebeharrak berdinak izango dituztelarik**. Izaera apolitikoa izango du eta Bazkideen eta beren lagunen errespetu eta elkarbizitzako araurik xumeenen arabera eraenduko da. Ez da egongo, beraz, haien jatorria, sexua, arraza, erlijioa, hizkuntza, sexu-joera edota beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal edo sozial dela-eta diskriminaziorako biderik emango duen inolako xedapenik.

5. artikulua

Elkarte Zuzendaritza batzordeak zuzenduko du, beti ere Estatutuetan, Barne Araudian eta Batzar Nagusietan onar litezkeen akordioetan oinarrituta.

II. KAPITULUA

BAZKIDEEKIKOAK OROKORKI

6. artikulua

Bazkideak lau motatakoak izan daitezke: Ohorezkoak, Osoak, Kirol-bazkideak eta Erretiratuak.

7. artikulua

Aurreko artikuluan izendatutako bazkideen bereizketa, ondorengo eran egingo da:

- a. Mendizaletasunean beren eskuzabaltasunaz nabarmendu eta Elkartearikiko beren jatorria nabarmenkiro azaldua dutenak Ohorezko bazkide izango dira, baldin eta izendapen hori Zuzendaritza-batzordeak hala onartu eta Batzarrak berresten badu. Ahalmen hori dena dela, zuhurtzia handiz erabili beharko da. Ohorezko Bazkide izendatuek, beste bazkideen errespetu eta begirunea beste eskubiderik ez dute izango.

AIZKORRI Mendizale Elkartea

- b. Bazkide Osoak berriz, elkartearen egoitza eratu eta beren giza laguntzaren eta laguntza materialaren bitartez denen ametsa gauzatu ahal izatea eragin dutenak izango dira. Era berean, sortutako hutsuneak betetzearren, geroago onartuak izan diren bazkideak ere Bazkide Osoak izango dira. Baita Bazkide Oso izaeraz gozaten jarraitu nahi duten erretiratu guztiak ere.
- c. Kirol-bazkideak berriz, Elkarte honetan eta Mendi-federazioan izena emanda dauden guztiak izango dira, Barne Araudi honetan adierazten diren eskubide eta obligazioekin.
- d. Elkartean gutxienez ere 15 urtetan zehar bazkide izan eta erretiratuta daudenak hartuko dira Erretiratutako bazkidetzat. Erretiratutzat hartzeko, arauzko adinera iritsi direlako beren enpresako plantilan baja emanak izan behar dute.

III. KAPITULUA

BAZKIDE OSOEKIKOA

8.artikulua

Bazkide Oso izateko, ondorengoak bete behar dira:

- a. 18 urte beteak izatea.
- b. Bazkide berriaren behin-behineko onarpena Zuzendaritza-batzordeak onartzea **eta lehentasunez Kirol-bazkide baldin bada**. Bazkide berriaren izena ohartaulan 15 eguneko epean azaldu behar du, behin-behineko onarpenaren berri bazkide guztiek jakin dezaten. Bazkide-sail esanguratsuren baten desadostasun jarrerarik azaltzen ez bada, behin betiko onartua izango da.
- c. Bazkide berriak, sarrera-kuota ordaindu beharko du, eskudirutan edota epeka, Zuzendaritza-batzordeak bidezkotzat dituen irizpideen arabera adierazten zaiona betez.
- d. **Elkartean indarrean dauden Estatutuak**, Barne Araudi hau edota hauen ordeztokizunean izan daitezkeenak onartu egin beharko ditu.

ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

9. artikulua

Bazkide Osoek ondorengo eskubideak izango dituzte:

- a. Batzar Nagusi guztietan ahots eta botoarekin partaide izatekoa, bai ohikoetan eta baita apartekoetan ere.
- b. Klubaren ordezkaritza- eta gobernu-organoetarako hautesle eta hautagaiak izatea, betiere adinez nagusiak badira eta jarduteko gaitasun osoa badute.
- c. Zuzendaritza-batzordeak aurkezten dituen kontu guztiak aztertzea.
- d. Elkartearen egoitzan eskaintzen diren zerbitzu eta abantaila guztien erabiltzaile izatekoa.
- e. Kirol-klubaren helburu espezifikoak lortzeko bidean parte hartzea, indarreko legedian eta estatutuetan xedatutakoari jarraituz, eta helburu horiek bete daitezela exijitzea.
- f. Kirol kluba libreki uztea.
- g. Kirol-klubaren jarduerak ezagutzea eta beraren dokumentazioa aztertzea.
- h. Kirol-klubaren baitan bere iritziak askatasunez adieraztea.
- i. Haien aurka diziplina-neurriak ezarri baino lehen entzunak izatea, bai eta neurri horiek funtsatu duten gertaeren gaineko informazioa jasotzea ere; gainera, isunik badagokio, horri buruzko erabakia arrazoitua izango da.
- j. Legearen edo estatutuen aurkakotzat jotzen dituzten kirol-klubeko organoen erabakiak aurkaratzea.

10. artikulua

Elkartekoak ez diren pertsonak lagun dituela letorkeen Bazkide oro, berarekin datozen pertsonen erantzule egingo da.

11. artikulua

Bazkide Osoek, hileroko kuota legez, Batzar Nagusiak erabakitako kuota ordainduko dute. **Kuota honen zenbatekoa urtero altxako da, aurreko urteko KPIaren arabera.** (2002ko Batzar Nagusietako erabakia)

Ordainketak, hileroko, hiruhileroko, sei hileroko edota urtero kuota bakarrean egin ahal izango dira. Azken modu hori (urterokoa) aukeratzen bada, ordainketa urte-hasieran egingo da. Bazkideek, banketxean helbideratuta egin

ditzakete beren ordainketak edota dagokien diru-kopurua Elkartearen kontu korrontean sartuta.

12. artikulua

Hileroko kuota ordaintzeko betebeharretik libre geldituko dira ondorengo kasuetan aurkitzen diren bazkideak:

~~a. — Zerbitzu Militarra (soldaduska) betetzen ari direnak. Kasu honetan, edozein arrazoirengatik ere, beste edozein pertsonari giltza ematerik ez du izango. Lege hau desagertzean a) atala kenduko da (2003/11/11n Kendua)~~

b. Egoera bereziren bat dela eta, Zuzendaritza-batzordearen iritziz eta erabakiz bidezkoak diren kobaketetatik salbuetsiak gerta litezkeen bazkideak..

c. Erretiratutako bazkideak.

d.

13. artikulua (kendua)

14. artikulua

Gonbidatuek, Elkartean dauden kontsumo-gaiak edota bestelakoak beren buruei edo besteei zerbitzeko inolako eskubiderik ez dute izango eta zerbitze-eginkizunak bazkideek berek egin beharko dituzte, aldi berean, kontsumitzen dutenaren diru-ordainketa zintzo eginez. Halaber, bazkide ez direnek sukaldarako sarbiderik ere ez dute izango han “sukaldaritzan” edo prestakuntzan aritzeko; nolana ere, kasu berezietan eta bazkideak kopuruak direla bide zeregin horiek burutu ezin dituenetan, gonbidatuen laguntza eskatu eta erabili ahal izango du, eta kasu horietan, gehienera ere **BI PERTSONEN laguntza mugatua izango du.** Baimen horrek, **BAZKIDEAREN EZKONTIDE EDO BIZIKIDEA** bere barne hartzen du, baina beti ere bazkidea izango da lankidetzaren horretan gerta daitezkeen akatsen (gabezien, falten, eta abarren) erantzule

15. artikulua

Bazkideek, eskubidez dagokienez, Elkartek eskaintzen dituen zerbitzu-mota guztiak erabili ahal izango dituzte eta beren erabili eta gozatzeko eskubidea kontuan hartu beharko dute.

16. artikulua

Bazkide bakoitzaren betebeharra izango da berak edo berarekin Elkartean sartu dituen pertsonen erabilitako botilak, edontziak eta erabilitako gainerako tresnak eta ontziak jasotzea eta dagozkien lekuetan behar bezalako ordenan uztea. Salbuespen-kasuetan, bazkideei kristalezko ontziak garbitzen laguntzea gomendatzen zaie. Era berean gomendatu egiten zaie bazkideei, balio handiko tresnen erabilpenean arreta eta kontu berezia jar dezatela, hala nola kafegailua, telebista, berogailua, etab., beti ere, beren zerbitzua eskaini ondoren behar bezala gelditu dela egiaztatuz. Mahaiak erabiltzean, obligazioa da behar bezala garbituta uztea eta beren inguruko aulkiak edo jarlekuak ere ordenan eta egoki uztea. Zuzendaritza-batzordeak obligazio edo betebehar horiek sistematikoki ez direla betetzen ikusiko balu, ahalmena ematen zaio bidezkoak iruditzen zaizkion zigorrak jartzeko, beti ere aldeztatik bazkideei jakinarazita.

17. artikulua

Bazkide guztiek obligazioa dute egindako **kontsumoari dagokion txartela hartu eta betetzeko**. Ondoren, txartel hori horretarako jarrita dagoen plastikozko zorroan sartu eta kontsumoko datuak biltzeko dagoen leihatilan sartu behar dute. Edozein arrazoi dela bide, bazkideren batek berak kontsumitutakoaren balio-kopurua dirutan sartuko ez balu ere, obligazioa du hartutakoa adieraziz dagozkion txartelak leihatilan sartzeko. Bazkide guztiei gomendatu egiten zaie egindako kontsumoari dagozkion txartelak jasotzen arreta berezia jartzea, izan ere, horrek kontrola erraztu egiten baitu. Kontsumoaren kontrolean antzematen diren anormaltasunak, ohartaulan jakinaraziko dira.

18. artikulua

Giltza duen bazkide orori, zenbaki bat izendatuko zaio eta zenbaki hori, Elkarteko bizitzari dagozkion arloetan beti erreferentzi moduan erabiliko da.

19. artikulua (moldatua)

Kuotak, **11. artikuluan** adierazitakoaren arabera ordainduko dira.

Kuotak hilero ordaintzeko modua aukeratu duten bazkideei baja emango zaie, baldin eta hiru hilabetetako kuotak ordaindu gabe badituzte.

AIZKORRI Mendizale Elkarte

Kuotak hiruhilero ordaintzeko modua aukeratu duten bazkideei baja emango zaie baldin eta hiruhilekoaren amaieran kuota ordaindu gabe badute.

Kuotak seihilero ordaintzeko modua aukeratu duten bazkideei baja emango zaie baldin eta urtearen lehen hiruhilekoan kuota ordaindu gabe badute.

Kuotak urtero ordaintzeko modua aukeratu duten bazkideei baja emango zaie baldin eta urtearen lehen hiru hilabeteetan kuota ordaindu gabe badute.

Dena dela, neurri horiek betearazi aurretik, Bazkideari bere egoeraren berri jakinarazi egingo zaio eta hamabost eguneko epea emango zaio kuoten ordainketa eguneratzeko.

20. artikulua

Ohiko eta Aparteko Batzar Nagusietako eztabaidetan esku hartzeko, beharrezkoa izango da Elkartearikiko obligazio edo betebeharrak guztietan egunera egotea. Horretarako hala dauden legez hartuko dira, batzarra egin aurreko hileko kuotak ordainduak dituztenak.

21. artikulua

Elkarteko diru-izakinen jabetza bazkide guztien taldeari dagokion legez, bazkideek ere obligazioa dute onartuak dituzten betebeharrak elkartasunez betetzeko.

Bazkideek honako betebeharrak izango dituzte:

- a) Kirol-klubaren helburuak partekatzea eta horiek lortzeko bidean kolaboratzea.
- b) Estatutuen arabera bazkide bakoitzak ordaindu behar dituen kuotak, derramak eta bestelako ekarpenak ordaintzea.
- c) Kirol-klubeko organoek hartzen dituen baliozko erabakiak ontzat hartzea eta betetzea.
- d) Estatutuetatik eta araudietatik ondorioztatzen diren gainerako betebeharrak.

22. artikulua

A) Bazkide izaera honako hauetan galduko da:

1) Norbere borondatez. Bazkide batek baja eskatu nahiko balu, Zuzendaritzari eskaria luzatu beharko dio, urte edo ekitaldian zehar tramitatua izan dadin. Norbere borondatez eskatutako bajak ez dauka inolako ordainsaririk, artikulua honetako B atalean jasotako salbuespenarekin.

2) Heriotzagatik edo, pertsona juridikoen kasuan (baleude), desegiteagatik. Artikulu honetako C atalean zehazten da ordainsaria.

3) Bazkide-kuotak arauz ezarritako epean ez ordaintzeagatik, betiere berandutze horren arrazoiak ez badira behar bezala justifikatzen Zuzendaritza Batzordearen iritziz. Ez dauka inolako ordainsaririk.

4) Batzar Nagusiek edota zuzendaritza batzordeak era zuzenean hartutako akordioak larriki ez betetzeagatik edota Estatutu zein Barne Arauditik eratorritako betebeharrak larriki ez betetzeagatik. Ez dauka inolako ordainsaririk.

B) Etxebizitzaz aldatu direlako edota ezinbesteko arrazoiengatik herritik kanpora bizitzera joan beharrean gertatu direlako eta Beasaindik kanpora HOGEITA BOST KILOMETROKO gutxieneko erradioa baino urrunago kokatu direlako Elkartearen egoitzara ohikotasunez etortzerik ez dutela argudiatuz Elkartean baja eman beharrean aurkitzen diren bazkideei, bazkide berrientzat ezartzen den sarrera-ekarpenaren % 50eko kopurua ordainduko zaie kalteordain-kontzeptuan.

C) Era berean, Bazkide Osoaren heriotza-kasuan, bere zuzeneko familiakideei eskainitako diru-laguntza moduan, bazkide berriak sartzeko ezarritako ekarpen-kopuruaren % 80 emango zaie, edota bestela, familiako norbaitek hildako bazkidearen lekua betetzeko aukera eskainiko zaie.

23. artikulua

Hasierako ekarpenaren uneko balioa, Zuzendaritza-batzordearen agintealdi-amaieran egindako bileran aldizka finkatua izango da eta balio hori izango da oinarri, aurreko artikulua xedatuaren arabera, izandako baje arabera eman beharren likidaziorako. Uneko balio hori, inoiz ere ez da izango Elkarteak bazkide bakoitzeko duen likido aktiboaren benetako zenbatekoaren baliokoa, izan ere, benetako uneko balioa, 3. artikuluan adieraziaren arabera Elkarte desegingo litzatekeen kasuan bakarrik emango baita aditzera..

24. artikulua

Hilabete zehar kontsumoan egiten den gastu oro, hileko likidazioa egin aurretik kitatua izan behar du. Epe hori igarota, zorra ordaindu ez bada, likidatu gabe igarotzen den aste bakoitzeko zorraren % 20ko zigorra erantsiko zaio eta zorrak bere horretan badirau, baja emana ere izan daiteke, Zuzendaritza-batzordeak arrazoizkotzat jotzen duen epea bere horretan iraganez gero. Zuzendaritza-batzordeari ahalmena ematen zaio zor horren kobraketa atzeratzeko, baldin eta bere iritziz, egindako zorra berehala kobratzeko ezintasunak sorrarazten dituzten bidezko arrazoiak baleude.

25. artikulua

Bazkide bakoitzari giltza bat emango zaio Elkartean sartu ahal izateko eta giltza hori kontu handiz zaindu beharko du. Galtzera iritsiko balitz, Zuzendaritza-batzordeari berehala jakinarazi beharko dio, ondoren egokien iruditzen zaion erabakia har dezan.

26. artikulua

Udal-ordenantzak ez betetzeagatik edota beste edozein lege- edo arau-hausterengatik, Elkarte hau zigortua gertatuko balitz, horretarako bide izan den/diren bazkideak/bazkideek, beren patrikatik ordainduko du/dute Elkarteari ezarritako zigorraren edo iritsitako kaltearen zenbatekoa. Kasua errepikatuz gero, ordaindu beharrekoak ordaintzeaz gainera, Zuzendaritza-batzordeak zigorra ezarri ahal izango dio/die eta baita baja eman ere.

27. artikulua (kendua)

28. artikulua

Zuzendaritza-batzordearen aukeraketa, ondorengo era honetan egingo da:

1. Bazkide Oso guztien zenbakiak ontzi batean sartuko dira.
2. Hamabi zenbaki aterako dira eta horiek osatuko dute Zuzendaritza-batzordea.
3. Eragiketa hori **BEDERATZI ALDIZ** egingo da **BEDERATZI TALDE** osatu arte.
4. Zenbakiak, Zuzendaritza-batzordeko ez diren bi bazkidek aterako dituzte ontzitik.
5. 1, 2 eta 3. taldeak aukeratzeko, **AZKENEKO HIRU ZUZENDARITZA-BATZORDEETAN** kargudun izandako Bazkideen zenbakiak ez dira sartuko. Ondoren azaltzen diren irizpideak jarraituko dira:
 1. taldea aukeratzeko (2000. urtea), 1997, 1998 eta 1999. urteetako zuzendaritza-batzordeetan kargudun izan ziren Bazkideen zenbakiak ez dira sartuko.
 2. taldea aukeratzeko (2001. urtea), 1998 eta 1999. urteetako zuzendaritza-batzordeetan kargudun izan ziren Bazkideen zenbakiak ez dira sartuko.
 3. taldea aukeratzeko (2002. urtea), 1999. urteko zuzendaritza-batzordeetan kargudun izan ziren Bazkideen zenbakiak ez dira sartuko.
6. Zuzendaritza-batzordea eratzeko modua:
 - a. Zuzendaritza-batzordean bete beharreko karguak, Lehendakariarengandik hasita, aukeratutako 12 kideen arteko adostasunez izendatuko dira.
 - b. Adostasunera iristen ez badira, bozketa egingo da 12 kide horien artean eta botorik gehien ateratzen dituen Lehendakari izendatuko da.
 - c. Lehendakaria izendatu ondoren, berak aukeratuko ditu Zuzendaritza-batzordeko gainerako kargudunak.
 - d. Kideren batek izendatu zaion kargua betetzeari uko egiten badio, Elkartean baja eman ahal izango zaio.
7. Zuzendaritza-batzordea osatzen duten kideen berri, ohartulan jarritako orri baten bidez emango da.
 8. Zuzendaritza-batzordeko 12 kideen artean, 65 urte betetako norbait balego, horrek aukera izango du Erretiratu-egoerara

pasatzeko eta bere lekua Bazkide berri batek beteko du urte berritik aurrera, baldin eta 65 urteak ekainaren 30a baino lehen betetzen baditu. 65 urte data horretatik aurrera betetzen baditu berriz, Erretiratu-egoerara pasatu ahal izango da, baina zuzendaritza-batzordean duen kargua, agintealdia amaitu arte bete beharko du.

9. Zuzendaritzatik irtetera doan Zuzendaritza-batzordeak, kargua hartu berri duen Zuzendaritza-batzordeari lagundu egin beharko dio bere eginkizunak betetzen, baldin eta azken horrek hala eskatzen badio.

Hautaketa-formula hau, 1999ko urriaren 1eko Aparteko Batzar Nagusian onetsia izan zen.

29. artikulua (kendua)

30. artikulua

Lehendakari hautatua gertatzen den bazkideak, derrigorrez federatu-karneta eskuratu behar du.

31. artikulua

Lehendakariak Zuzendaritza-batzordeko karguetarako izendatutako bazkideek, beren eginkizunak behar bezala beteko ez balituzte, Zuzendaritza-batzordeak, bidezkoak diren zigorrak ezartzeko ahalmena izango du, edota Elkartean baja ematera iristerainokoa.

32. artikulua

Bazkide Oso legez diren eskubide guztiak, gurasoengandik seme-alabengana suhi-errainengana edota senideengana (anaia/neba/arreba/ahizpengana) eskualdatuak izan daitezke, aldez aurretik Zuzendaritza-batzordeari berri emanda. Bazkide berriaren onarpena, 8. artikuluko b) atalaren arabera egin beharko da.

33. artikulua (kendua)

34. artikulua

Bazkide Oso orok obligazioa du Elkartearen egoitzara joaten diren mendizale guztiei behar den arreta eskaintzeko, bai gure Elkarteko Kirol-bazkideei eta baita beste Mendizale Elkartetako Kirol-bazkideei ere.

35. artikulua

Bazkide guztiek onartu eta bete beharko dute Araudi hau eta baita Zuzendaritza-batzordeak eta Batzar Nagusiak berei dagozkien eginkizunen arloan erabaki eta agindutakoak ere.

IV. KAPITULUA

KIROL BAZKIDEAK

36. artikulua

Kirol-bazkide izateko, honako hauek bete behar dira:

- a) 8 urte beteak izatea.
- b) Euskal Herriko Mendizale Elkarteko karneta indarrean edukitzea.

ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

37. artikulua

Kirol-bazkideek ondorengo eskubideak izango dituzte:

- a) Elkartearen egoitzan sartzeko, barruan Bazkide Osoren bat baldin badago.
- b) Kirol-materiala Bazkide Osoen baldintza berdinetan erabiltzeko.
- c) Kirol-gaietako eztabaidetan hitzez esku hartzeko eskubidea izango dute eta Elkarre honek antolatzen dituen ibilaldi, txango eta irteeretan Bazkide Osoei eskainitako onuren eskubide-berdintasuna izango dute.

38. artikulua

Kirol-bazkideek obligazio hauek dituzte:

- a) Zuzendaritza-batzordearen erabakiz ezarritako kuoten ordainketetan egunera egotea.
- b) Elkarteak antolatutako bi txango ofizialetan bederen gutxienez esku hartzea.

V. KAPITULUA

BATZAR NAGUSIEKIKOA

39. artikulua

Batzar Nagusiak, aldez aurretik deialdia egin eta eratuak, eskurantzaz guztiak ditu Elkarteari eta bazkideei dagozkien gai guztiak tratatu eta ebazteko, hau da:

- A. Zuzendaritza-batzordea 28. artikularen arabera hautatzeko.
- B. Gobernu-kudeaketa bidez Elkartearen ibilbidea bideratzeko.
- C. Zuzendaritza-batzordeak emanak edota bazkideek Batzar Nagusia egin aurretik behar den adina denboraz aurkeztutako betebeharrak aztertu eta ebazteko, izan ere horrela, Zuzendaritza-batzordeak aztertzea merezi duten gaiak, gai-zerrendan sartuak izango lirateke.
- D. Elkartearen Barne Araudi hau **edota Estatutuak** aldatzeko.
- E. Edozein kultur edo kirol-jarduera antolatzearen komenigarritasuna erabakitzeko, nahiz eta, orokorki, gai hori ebazteko ahalmena Zuzendaritza-batzordeari aitortu.
- F. **Kontuak eta aurrekontuak onartzea.**
- G. **Erregelamenduak onartzea.**
- H. **Kirol-klubaren bat-egitea, zatiketa, eraldaketa edo desegitea onartzea.**
- I. **Dirua maileguan hartzea.**
- J. **Higiezinak besterentzea eta zergapetzea.**
- K. **Eskualda daitezkeen zor-titulu adierazgarriak edo ondarezko zati alikuotarena ematea.**

- L. Administrazio-organoko kideen ordainsariaren baldintzak onartzea.
- M. Presidentearen aurkako edo, hala badagokio, Zuzendaritza Batzordearen aurkako zentsura-mozioa onartzea.

ERANSKINA (Zentsura mozioa):

Batzar Nagusiak Zuzendaritza Batzordeko kide guztien edo haietako baten edo batzuen erantzukizuna exijitu ahal izango du zentsura-mozio baten bidez. Mozio horrek, aurrera egingo badu, **berariaz deitutako bilkuran bertaratutakoen bi herenen aldeko botoa beharko du.**

Zentsura-mozioa idatziz aurkeztu beharko zaio Zuzendaritza Batzordeari, bazkide guztien %10eko babesarekin. Batzar Nagusi Bereziak aztergai bakarria izango du: zentsura-mozioa eztabaidatzea eta haren gaineko ebazpena ematea.

Zuzendaritza Batzorde osoaren aurkako mozio-zentsura onartzeak bertako kide guztien kargu-uztea ekarriko du, kirol-klubaren presidentearena barne. Zentsura-mozioa batzordekide baten edo batzuen aurkako bada, hura onartzeak batzordekide horien kargu-uztea soilik ekarriko du.

Zentsura-mozioak presidente berria izateko hautagai baten proposamena jaso dezake, edota, hala badagokio, Zuzendaritza Batzorde osoarena edo bertako kide batena edo batzuen. Hauatutako kargu berrien agintaldia aurreko agintaldiari bukatzeko falta zaion adinakoa izango da.

40. artikulua

Batzar Nagusiak, ohikoak eta apartekoak izango dira eta Bazkide Osoek hitzez eta botoz esku hartu ahal izango dute.

41. artikulua *(moldatua)*

Ohiko Batzar Nagusiak, urtero azaroan egingo dira eta baliozkoak izateko Bazkideen erdiek eta bat bertaratu beharko dute lehenengo deialdian. Lehenengo deialdian behar adina bazkide bilduko ez balira, handik orduerdia eta bigarren deialdian Batzar berria egiteko deialdia egingo da, eta bigarren horretan, bildutako bazkide-kopurua edozein izanik ere, gehiengoz onartzen diren erabakiak baliozkoak izango dira.

Bazkide Oso guztiek, obligazioa dute Batzar Nagusietara (Ohikoetara eta Apartekoetara) joateko eta **ZURITU GABEKO ARRAZOIRIK GABE** ez joatea zigortua izango da, 61. artikuluko D atalaren arabera.

42. artikulua (*moldatua*)

Aparteko Batzar Nagusiak berriz, Zuzendaritza-batzordeari komenigarri iruditzen zaizkionero izango dira deituak, edota Bazkide Osoen erdiek eta batek hala eskatzen dutenean, beti ere gai-zerrendan jartzeko deialdia zertarako egiten duten alde aurretik adierazita. Aparteko Batzar Nagusiak ere, bai deialdiari dagokionean eta baita asistentziari dagokionean ere, 41. artikuluan adierazitakoaren arabera eraenduko dira.

43. artikulua

Batzar Nagusietako eztabaidetan eta bozketetan, bildutako Bazkide Osoek bakarrik esku har dezakete eta zentzu honetan baliogabea da edozein ordezkari itzulia.

44. artikulua (*moldatua*)

Deialdiak, ohartaulan jarritako deialdi-oharraren bidez eta **eskutiz pertsonal ziurtatuak** bazkideei bidaltzea egingo dira eta bertan, gai-zerrenda eta ondorengo agiriak joango dira:

- a) Bazkide Oso guztien zerrenda eguneratua.
- b) Zuzendaritza-batzorde taldeen zerrenda eguneratua

45. artikulua

Egiten diren bozketak, han bildutakoek erabakitako modu desberdinetakoak izan daitezke, bai papertxo bidezkoak edota baita boto-emateen zenbaketa bidezkoak ere.

46. artikulua

Bozketaren batean berdinketarik gertatuz gero, bigarren bozketak egingo dira eta berdinketak jarraitzen badu, Lehendakariaren botoak erabakiko du.

47. artikulua

Bazkide Osoen Ohiko Batzar Nagusia egin aurretik, Kirol-bazkideentzako eta esku hartu nahi duten Bazkide Oso guztientzako Batzar Nagusi baterako deialdia egingo da. Batzar horretatik sortutako eskaerak eta proposamenak, Bazkide Osoen Ohiko Batzar Nagusian aurkeztuko dira aztertu eta bidezkoak irizten badira onesteko.

48. artikulua

Kirol-bazkideen Batzarra egiteko deialdia, ohartulan eta herrian ezagunak diren hedabideen bitartez adieraziko da.

VI. KAPITULUA

ZUZENDARITZA BATZORDEA

49. artikulua

Zuzendaritza-batzordea, Elkartearen administrazio- eta gobernu-organo iraunkorra da eta ahalmen osoa izango du berari esleituak zaizkion egintzak egiteko, bai Elkartearen barrukoak eta baita Elkarte kanpokoak ere, baina, Araudi honetan Ohiko eta Aparteko Batzar Nagusientzat espresuki gordetako eskurantzeari dagozkienak salbu.

50. artikulua. (51, 52, 53, 54 eta 55. artikulua kenduak izan dira).

ZUZENDARITZA-BATZORDEA, HAMABI BAZKIDE OSOZ ERATUTA EGONGO DA. (Lehendakaria, Lehendakariordea, Idazkaria, Diruzaina eta beste zortzi batzordekide; batzordekide horiek honako eginkizun hauek izango dituzte: Asteroko zenbaketa, Sotoko izakinen kontrola eta erosketak, eta Mendiko Sekzioaren ardura.

Zuzendaritza-batzordeak bere kideen kopurua handitu ahal izango du, baldin eta beharrezkoa duela irizten badu. Kasu horretan, **GEHIENERA ERE BI KIROL-BAZKIDEREN LANKIDETZA IZANGO DU MENDIKO JARDUERETARAKO.**

1. LEHENDAKARIAREN EGINKIZUNAK:

Elkartearen ordezkari legez eta pertsona juridiko moduan, ondorengoak izango ditu:

- a. Batzar Nagusietako mahaiburutza (bai Ohikoetan eta bai Apartekoetan) eta Zuzendaritza-batzordeko mahaiburutza, bileretako elkarrizketak gidatuz.
- b. Elkartearen gobernu eta eraentzak sortzen dituzten akta, idazki eta dokumentuak onespena emaneko sinatzea.
- c. Elkartearen ibilera onarekin zerikusia duen oro gainbegiratzea.

2. LEHENDAKARIORDEAREN EGINKIZUNAK:

Lehendakaria ordezkatu du eginkizun guztietan hura, arrazoi desberdinengatik (gaixotasuna, bidaiak, lan-egutegia, etab.), ez dagoenean.

Lehendakariak bere eginkizunetan diharduenean zeregin jakinik ez duenez, Elkartearen zereginetan murgilduta lanik gehiena duten kargudunei laguntzen jardungo du. Laburbilduta, elkartearen zereginetan "zuloak betetzen" arituko dena izango da, beti ere, bere ahalmenen arabera.

3. IDAZKARIAREN EGINKIZUNAK:

- a. Lehendakaria eta Lehendakariordea ordezkatu ditu eginkizun guztietan haiek, arrazoi desberdinengatik (gaixotasuna, bidaiak, lan-egutegia, etab.), ez daudenean.
- b. Elkarteko Dokumentuak eta eskutitzak nahiz artxiboa eta gisakoak bere kargupean izango ditu eta Batzar Nagusiak (Ohikoak nahiz Apartekoak) edota Zuzendaritza-batzordeak erabakitakoak akta-liburuetan idatzi beharko ditu erabakiak argi eta garbi azalduz, bere sinaduraz ziurtatuz eta Lehendakariaren Ontzat Emanaren ere azalduz.

4. DIRUZAINAREN EGINKIZUNAK:

- a. Elkartearen finantzaketa-arloaren arduradun izango da eta bere kargupean izango ditu kontuen aktiboko eta pasiboko mugimenduak. Gainera, kutxa-liburua egunera edukiko du, ordainagiriak prestatuko ditu eta bere karguari dagozkion gainerako eginkizunak beteko ditu..

5. GAINERAKO BATZORDEKIDEEN EGINKIZUNAK:

- a. Asteroko kontsumoaren zenbaketa ekonomikoa egitearen ardura izango dute.
- b. Asteazkero zehar gastatu diren jeneroen zenbaketa egitearen ardura izango dute.
- c. Bazkideek beren gozamen eta kontsumorako behar dituzten jeneroez Sotoa eta biltegia hornitzeko ardura izango dute.
- d. Elkartearen oinarritzko jardueren zama beren gain eramateko ardura izango dute, hala nola, urteazkero Mendiko Sekzioak antolatu eta burutzen dituen jarduerak antolatu eta gainbegiratzekoa eta Mendiko Federatuen txartelak izapidatzeko ardura ere izango dute.

56. artikulua (kendua)

57. artikulua

Zuzendaritza-batzordearen bilerak, ohikoak edo apartekoak izango dira. Ohikoak, gutxienez ere hilean behin egingo dira, eta data, batzordekideek ahal dezaketenaren arabera zehaztuko da. Apartekoak berriz, Lehendakariak edota hiru batzordekideek eskatu ondoren deituta egingo dira.

58. artikulua

Zuzendaritza-batzordearen erabakiak baliozkoak izan daitezen, beharrezkoa izango da gutxienez ere Zuzendaritza-batzordea osatzen duten Bazkide Osoen erdiak eta bat biltzea.

VII. KAPITULUA

BAZKIDE ERRETIRATUEKIKOA

ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

59. artikulua

Bazkide Erretiratuek, ondorengo eskubideak izango dituzte:

AIZKORRI Mendizale Elkartea

- a) Batzar Nagusi guztietan hitzez esku hartzekoa, bai ohikoetan eta baita apartekoetan ere.
- b) Elkartearen egoitzan eskaintzen diren zerbitzu eta abantaila guztiak erabiltzekoa.
- c) Bazkideek, eskubidez dagozkien Elkartearen zerbitzu guztiak erabili eta haietaz baliatzeko eskubidea izango dute.
- d) Giltzadun bazkide orori zenbaki bat izendatuko zaio, eta zenbaki hori, Elkartearen bizitzan erreferentzi moduan erabiliko da.
- e) Bazkide bakoitzari giltza bat emango zaio Elkartean sartu ahal izateko eta giltza hori kontu handiz zaindu beharko du. Galtzera iritsiko balitz, Zuzendaritza-batzordeari berehala jakinarazi beharko dio, ondoren egokien iruditzen zaion erabakia har dezan.

60. artikulua

BAZKIDE ERRETIRATUEK BETE BEHARREKOAK:

- a) Bazkide bakoitzaren betebeharra izango da berak edo berarekin Elkartean sartu dituen pertsonak erabilitako botilak, edontziak eta erabilitako gainerako tresnak eta ontziak jasotzea eta dagozkien lekuetan behar bezalako ordenan uztea. Salbuespen-kasuetan, bazkideei kristalezko ontziak garbitzen laguntzea gomendatzen zaie. Era berean gomendatu egiten zaie bazkideei, balio handiko tresnen erabilpenean arreta eta kontu berezia jar dezatela, hala nola kafe-makina, telebista, berogailua, etab., beti ere, beren zerbitzua eskaini ondoren behar bezala gelditu dela egiaztatuz. Mahaiak erabiltzean, obligazioa da behar bezala garbituta uztea eta beren inguruko aulkiak edo jarlekuak ere ordenan eta egoki uztea. Zuzendaritza-batzordeak obligazio edo betebehar horiek sistematikoki ez direla betetzen ikusiko balu, ahalmena ematen zaio bidezkoak iruditzen zaizkion zigorrak jartzeko, beti ere alde aurretik bazkideei jakinarazita.
- b) Bazkide guztiek obligazioa dute egindako kontsumoari dagokion txartela hartu eta betetzeko. Ondoren, txartel hori horretarako jarrita dagoen plastikozko zorroan sartu eta kontsumoko datuak biltzeko dagoen

AIZKORRI Mendizale Elkarte

leihatilan sartu behar dute. Edozein arrazoi dela bide, bazkideren batek berak kontsumitutakoaren balio-kopurua dirutan sartuko ez balu ere, obligazioa du hartutakoa adieraziz dagozkion txartelak leihatilan sartzeko. Bazkide guztiei gomendatu egiten zaie egindako kontsumoari dagozkion txartelak jasotzen arreta berezia jartzea, izan ere, horrek kontrola erraztu egiten baitu. Kontsumoaren kontrolean antzematen diren anormaltasunak, ohartaulan jakinaraziko dira.

- c) Hilean zehar kontsumoan egiten den gastu oro, hileko likidazioa egin aurretik kitatua izan behar du. Epe hori igarota, zorra ordaindu ez bada, likidatu gabe igarotzen den aste bakoitzeko zorraren % 20ko zigorra erantsiko zaio eta zorrak bere horretan badirau, baja emana ere izan daiteke, Zuzendaritza-batzordeak arrazoizkotzat jotzen duen epea bere horretan iraganez gero. Zuzendaritza-batzordeari ahalmena ematen zaio zor horren kobraketa atzeratzeko, baldin eta bere iritziz, egindako zorra berehala kobratzeko ezintasunak sorrarazten dituzten bidezko arrazoiak baleude.
- e) Udal-ordenantzak ez betetzeagatik edota beste edozein lege- edo arau-hausterengatik, Elkarte hau zigortua gertatuko balitz, horretarako bide izan den/diren bazkideak/bazkideek, beren patrikatik ordainduko du/dute Elkarteari ezarritako zigorraren edo iritsitako kaltearen zenbatekoa. Kasua errepikatuz gero, ordaindu beharrekoak ordaintzeaz gainera, Zuzendaritza-batzordeak zigorra ezarri ahal izango dio/die eta baita baja eman ere.
- f) Bazkide guztiek onartu eta bete beharko dute Araudi hau eta baita Zuzendaritza-batzordeak eta Batzar Nagusiak berei dagozkien eginkizunen arloan erabaki eta agindutakoak ere.

VIII. KAPITULUA

ISUNAK

61. artikulua

Kirol-klubeko kideek isuna jaso dezakete, betiere aldeztu aurretik administrazio espedientea izapidetu eta interesatuari entzunaldia eman ondoren. Isunak izan daitezke, hasi aldi baterako eskubideak galtzetik

kirol-kluba behin betiko uzterainokoak. Honako hutsegiteen ondorioz larritasunaren araberako isunak ezaz daitezke:

- A.- Kuotak ez ordaintzeagatik, 19. artikulua aplikatuko da.
- B.- Elkarteko jeneroak kontsumo-txartela bete gabe kontsumitzea edo eramatea, arau-hauste arintzat hartuko da.
- C.- Elkarteko tresneriari tratu txarra ematea, arau-hauste larritzat hartuko da.
- D.- Batzarretara ez etortzea:
 - 1.- Lehenik ohartarazi egingo da.
 - 2.- 6 hilabeteko eskubide-gabezia ezarriko da. Zigor hauek bost urteko epea kontuan hartuta ezarriko dira.
- E.- Zuzendaritza-batzordeak deitutako bilerara ez etortzea, arau-hauste arintzat hartuko da eta **2. gutuna ohartarazteko izango da.**
- F.- Gainerako bazkideei men ez egitea edo haiek kontuan ez hartzea, arau-hauste larria edo arina izango da.
- G.- Zuzendaritza-kargua ez betetzea (31. artikulua araberan).
- H.- Bere lagunak Elkartean utzita bazkideak Elkartetik alde egitea arau-hauste larria da.
- I.- Dirua lapurtzea arau-hauste larria da.
- J.- Ekitaldiaren amaieran zorra motatzea arau-hauste larria da.
- K.- Elkarteko giltza beste pertsona bati ematea arau-hauste larria da.
- L.- Udal-ordenantzak ez betetzea arau-hauste larria da.
- M.- Bazkideak bere lagunei Elkartearen barruan gaizki portatzen uztea arau-hauste larria da.

OHARRA: Zigorgarri izan daitezkeen portaera-modu eta arrazoi guztiak dokumentu honetan sartzea ezinezkoa denez, ahalmena ematen zaio Zuzendaritza-batzordeari, bere irizpideen arabera, ekintzei dagozkien eta bidezkoak diren zigorrak ezar ditzan.

IX. KAPITULUA

DOKUMENTUEN ARAUBIDEA

62. artikulua

Kirol-klubak honako liburu hauek, gutxienez, edukiko ditu antolatuta eta eguneratuta:

a) Bazkideen Erregistro Liburua. Bertan zehaztuta agertu beharko dute bazkideen izen abizenak eta bizilekua. Alta eta baja datak ere zehaztuko dira.

b) Kide anitzeko organoen akta-liburuak. Bertan jasoko dira bai Batzar Nagusietako, bai zuzendaritza bileretako jarduna, zehazki data, bertaratuak, gai ordena eta hartutako erabakiak jasoz. Kirol-klubeko Idazkaritzak eta lehendakaritzak sinatuko dituzte.

c) Kontabilitate-liburuak. Horietan, klubaren diru emaitza eta finantza egoeraren berri, ondasunen inbentarioa barne, emango da, ondarearen benetako irudia emango duten eran, indarrean dauden kontabilitate xedapenetan eskakizunak betetzeko datu eta mugimenduak zehaztuz.

d) Hala badagokio, zor-tituluen edo ondarezko zati alikuotaren erregistro-liburuak.

X. KAPITULUA

EKONOMIA ARAUBIDEA

63. artikulua

Kluba berezko aurrekontu eta ondare araudiaren mende egongo da. Ekonomia-ekitaldia urtekoa izango da, eta amaiera urte bakoitzeko URRIAREN 31N izango du.

Diru-sarrera guztiak, kirol-ekitaldietan eskuratutakoak barne, oso-osorik erabiliko dira helburu soziala garatzeko. Inola ere ez da onartuko etekinak bazkideen artean banatzerik, ezta haien ezkontideen edo antzeko afektibitate-harremana duten bizikideen artean ere, edo ahaideen artean. Orobat, ezingo da doako lagapenik egin irabazi-asmoa duten pertsona fisiko edo juridikoen alde.

XI. KAPITULUA

XEDAPEN GEHIGARRIAK

64. artikulua

Araudi hau Batzar Nagusiak bakarrik alda edo balioezta dezake, deialdiarekin batera emandako gai ordenean berariaz aipatutako gaietan.

Salbuespen gisa Zuzendaritzak estatutuak alda ditzake, beti ere Batzar Nagusien Aginduz, eta hark agindutakoari ertsiki jarraituz.

Nolanahi ere, aldaketak inskribatu egin beharko dira, eta fede oneko hirugarrengoen eragina izango dute Euskadiko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzen diren unetik.

65. artikulua

Kirol-kluba desegin eta likidatuz gero, haren ondorioz geratzen den ondare garbia udalerrri bereko, edo hala badagokio, lurralde historiko bereko beste kirol-entitate baten bitartez kirola sustatzeko eta praktikatzeko helburuetarako erabiliko da.

ELKARTEKO SEGURTASUN ETA KONTROLERAKO
JARRITAKO BIDEO-KAMERAREN
FUNTZIONAMENDU-ARAUAK.

A.- Segurtasunerako bideo-kamera, Zuzendaritza-batzordeari faltak, lapurretak eta Elkartearen erabilpen ona erasaten duten gisako ekintzak kontrolatzeko lagunduko dion erreminta moduan bakar-bakarrik erabiliko da.

B.- Zinta, zuzendaritza-batzordeko kideek bakarrik ikusi ahal izango dute.

C.- Zinta ikusi ondoren, zigorgarri den ekintzarik balego, zinta froga moduan gordeko da harik eta Zuzendaritza-batzordeak behar diren neurriak hartu arte.

D.- Zinta ikusi ondoren, ekintza zigorgarririk ez badago, ezabatu egingo da.

E.- Zinta hori, goian aipatutako helburuetarako izan ezik, ez da beste ezertarako erabili ahal izango.

F.- Bazkideren baten zinta, lehen aipatutakoak ez diren beste helburu batzuetarako erabiliko balu, bazkide hori Elkartetik kanporatua izango da.

G.- Bideo-kameraren filmaketekin jarraitu ala ez, Zuzendaritza-batzordeak dituen irizpideen arabera erabakiko du.

AZKEN OHARRA: Elkartearen barruan segurtasunerako bideo-kamera erabiltzea, 1999ko azaroaren 19an bazkideek egindako Batzar Nagusian onetsi zen.